

TITULUGABEA

Nafarroa (1991.9.20)

Europako ekialdean sorturiko askatasun mugimenduak bat batean gure arteko hamaikatxo aho zabalik eta harrituta utzi duela ematen du. Mugimendu hau ondorengo hamarkadetan hedatu eta ugarituko den izeberg baten punta bakarrik delakoan gaude. Baina harridura hau ez litzateke gure artean hainbesterainokoa izan behar zeren zehatz mehatz eta denboraz igarria izanez aparte, politikoki guretzat onuragarria izan zedin beharrezko ziren baldintzak eta estrategia ere garaiz seinalatuta bait zeuden.

Une honetan, berriz ere gure herria kinka larrian dagoenean eta gureak deituriko politikariek orain arte agertu duten gaitasun-eza edo maltzurkeria kontutan izanik, Euskalerrian sorturiko pentsamendu politiko sakon baten adierazpena egitea behar beharrezkoa iruditzen zaigu.

LAN DEYAn edo IPARLAN aspaldi xedatua izan da Euskalerriak ibili behar zuen bidea bere helburuak betetzekotan, baina bide hau orain arte ia guztiz ezezaguna da.

Inperialismoaren morrontzapean terrorismora edo parlamentura bultzatuz herria ardi galdu baten antzera utzi duten ergel, axolagabe eta bizkarkinen saldo horrek ez baldin balu pentsamendu politiko hori baztertu eta izkutuan egotera behartu, Euskalerriak gaur mugimendu demokratiko baten aitzindari eta liderra izan behar zuen eta ez, oster, mendebalde guztiko herri bitxi eta farregarrienetako bat.

Ez dut, inork besterik uste baldin balu ere, inolako lotura pertsonalik idatzi horien egilearekin. Neure askatasunaren alde egitearren eta askatasuna egiaren bidetik bakarrik etorritzaigukela pentsatzearen zirriboratu ditut lerro hauek.